

HARRIEN



MINTZOA

Xabier Amuriza

Bere lagun handi bihurtzeko zortea izan nuen
Erramun Gametxo pentsalariari.
Bizi guztia ideia baten-batzuen inguruan emanik,
merezi besteko arretarik jaso gabe joan zenari.

Premia gabeko hitzaurre bat

Nire denbora oroimena da. Hau nahiko beterik dago, baina denborak etortzen jarraitzen du. Eta etorri ahala bete ezik, denbora zama bihurtzen da. Baina adinak ez du laguntzen zama arintzen. Eta abar eta abar. Kontua da behin galdetu nuela: «Nik zer esan dut?». Buf! Horretarako, gutxienez, idatzi dudan guztia errepasatu beharko nuke. Eta pentsatu nuen: «Ba, hara! Etortzen ari den denbora betetzeko era efektibo bat izan daiteke».

Nik oso maite dut neure oroimenean atzera eta aurrera ibiltzea. Eta pentsatu nuen horixe egitea, hautaketa bat eginez. Nik zer esan dut? Errepaso horretan aurkituko nituen esaldi batzuk jasotzen joango nintzen. Egin nuen kapritxoa, bete nuen denbora bat, eta mila bat esaldi atera ziren. Laburtzen-laburtzen joan nintzen, eta esan nuen: «Nahikoa da. Bego honetantxe». Eta geroztik, neure oroimenean atzera-aurrera ibiltzea erabat erraztu da. Noiznahi egin dezaket joan-etorriko bidaia bat, neure denboran zehar. Uste baitut harrien mintzo honek nahiko ondo erretratatzeko nauela.

Eta uste baitut nire oroimenetik beste oroimen batzuetara analogia batzuk egon daitezkeela, baita, beharbada, kidetasun batzuk ere, ausartu naiz sarean jartzera, norbaitek denbora betetzen laguntzeko makulurik behar balu. Hala ez balitz, nik neureari berdin ekingo diot, harrien mintzo hau neure haitzuloa sonorizatzeko sortua izan baita.

BAT

1. Ni naiz haurtzaroa gehi eranskin bat.
2. Hilezkor naiz. Behin huts egingo dudalako, ez diot utziko beste guztietan asmatzeari.
3. Ez naiz hilezkor. Eta zer? Bizi naiteke banintz bezala.
4. Zorion handia da izatea hiri batekoa, zeina ez baitzuen ezein konkistarik fundatu, ezein monarkak saritu, ezein enperadorek nominatu. Hiri hori ez da existitzen, baina hangoa naiz.
5. «Biziko zara gure oroimenean». Baina hori zuen oroimena da, ez nirea.
6. Arestik lehoiak nahi zituen. Orain tximeletak nahi dira. Garaiak aldatu dira, bai. Badirudi lehoiak beharko direla berriz.
7. Euskaltzaindiak gehiago iraungo du euskarak baino.
8. Kolonizazioari «aurkikuntza» deitzen diotenek jakin behar lukete gizakia bazela han, milaka urtetan.
9. Ez dago argi Sarri bafletik kanpoan dabilen.
10. Onenetan onena baino zailago da txarrenetan onena. Nola dakidan?
11. Errazago da heroi nazionala izatea, maitale ona baino.
12. Hain da naturala ekilorea zabaltzea nola tigreak haur bat jatea.
13. Hamar baliente baino nahiago ditut ehun koldar.
14. Askatasunaren mugak handiak dira. Gutxienez, norbere buruarenak adinakoak.
15. Historia errepikatzen bada, zergatik ikasten dugu?
16. Zer esanik ez dudanean, maitasunari ekiten diot.
17. Lortu dut izar batera iristea. Penagarria! Handik ez da lurrik ikusten.
18. Nire oroitzapen bat dagoen lekuan, han nago ni, oso-osorik.
19. Gizakia asko interesatzen zait piztia bezala.
20. Nire geriza gutxitan dator bat nire norabidearekin.
21. Adimen sano batentzat gogorra izan behar du jakitea giza espeziekoa dela.

BI

1. Dinosauroen aro guztia igaro nuen batere sufritu gabe.
2. Nire amets gehienak sasira joan dira, baina ametsak izan dira.
3. Gutxi ala asko egin, ipurdia berdin garbitu behar da. Baina zuzenean ez duzu ikusiko nola geratu den.
4. «Zerbait» izango da, bai. Zerbait hori «ni» izango? Ez dut lotura ikusten.
5. Porrotaren akatsa da ezina aurreikusi ez izana.
6. Asmatzen ez dago erraz, baina infinituak gara errorean.
7. Genero-biolentziak 200.000 urte daramatza. Justiziak 200.000 urte daramatza. Argi dago bide paraleloak behar direla. Efektiboagoak.
8. Kolonizatzaile basatiek gauza onak ere sortu omen zituzten. Unibertsitateak eta. Norentzat?
9. Norbait oso jakintsu iruditu bazaizu, agian ez zara ohartu dakien guztia esan dizula.
10. Jakintsu handiek oso gutxi dakite jakin beharreko gauzetan.
11. Nori bururatu zitzaion existentziak zentzu bat behar zuela?
12. Artasuna eboluzioaren errore bat izan zen. Naturari berdin dio.
13. Animalien espezie gehienetan, arrak ez dio erasotzen emeari. Salbuespen doilor bat gara.
14. Nire eguna beti da berezia. Ez da errepikatuko.
15. Ez dut pretenditzen mundua diferentea izatea. Nahikoa da neu diferentea izatea.
16. Gizakiaren zentzua osatzen denerako, zati on bat joana da.
17. Zezena heriotzaren inguruan biraka, toreroa akabatzea hain erraza izanda.
18. Ehun urterekin hila ez banaiz, pentsatu beharko dut zerbait.
19. Bertsoa nire bizibidea izan da. Artea ere baietz uste dut, batzuetan.
20. Ez dakit zerk osatu nauen gehiago, idealek ala beldurrek.
21. Bizia luzatzeak zenbat handitu duen sufrimendua!

HIRU

1. Heriotza dohatsua izango dudala uste dut, pena amaituen poza handiago izango baita poz utzien pena baino.
2. Maitasunak ahultzera jotzen du. Gorrotoak, sendotzera.
3. Nire hilezkortasuna izan daiteke hieroglifiko bat, etorkizun guztian dezifratu ezinik ibiliko direna.
4. Emakumeari askoz gutxiago interesatzen zaio konpetentzia.
5. Jakintsua da berak behar adina dakiena.
6. Amodioak mirari adina triskantza egin du. Proportzio baikor bat ematearren.
7. Batek negarrik ez du egiten. Ene hilkutxan dator hura.
8. Paisaia batek tristura eman badizu, zeure tristura islatu du.
9. Zelan ukazionistekin? Oso ondo. Haiek uste dute gu ergelak garela, geuk ere berdin haietaz, eta aurrera horrelaxe, berdinketa estoikoan.
10. Ez naiz arrazista, baina nahiago dut zuriekin ez tratatu.
11. Erromaren historia handiosak damaidan plazer nagusia da ia inor inportanterik ez zela berez hil.
12. Armen indarraren ondorioa, denborarekin, borondate onartzaile bat bihurtzeak ez du kentzen beste borondate batzuk egoterik, arrazionalki hobeak.
13. Argi dago gizona askoz biolentoago dela. Emakumea hain biolentoa ez izateak libratzen du gizadia eztanda global batetik.
14. Zentzugabea da naturari zuzenketak erreklamatzeari. Horiek adimenaren ekarpenak dira, biolentziaren erabilera efektiboagorantz.
12. Giza denbora bakarra oroimena da, eta oroimenean ez dago orainik.
13. Identifikazio gabeko tristura buru gabeko gorputz bat agertzea bezala da.
14. Txakurrak hizketan ez dakielako zaunka egiten badu, hizketan dakien haurrak zergatik egiten du zaunka?
15. Eraso sexualetan, osagai biolentoa indartsuago da sexu-grina bera baino.
16. Beti izango dira hezkuntza orotatik kanpo jokatzeko perbertsioak, banakoak zein elkartuak.

LAU

1. Anbotok ondo nagoenean bakarrik laguntzen dit.
2. Zorionean arrazoi askok bat egin behar dute. Zoritxarrean nahikoa da bat.
3. Pauma arraren edertasun apart hori bere marru dezepzionantea konpentsatzeko izan daiteke.
4. Saguak ez zidan higuinik ematen, euskaldunak ordenagailukoari «arratoia» deitzen hasi arte.
5. Zuzendari espirituala izutu zen esan nionean Ama Birjina biluzik agertzen zitzaidala. Geroztik, biluztasun birjinala bistatik kendu ezinik erotu zen.
6. Itsas horizontea zergatik iruditzen zait itsas maila baino gorago?
7. Hildako baten alboan, maitale lokartuaren alboan bezala egon naiteke.
8. Genero-biolentzien eremuan, «legearen pisua» desafiatzeko ekimenak behar dira. Zigor gaitzazu, baina egingo dugu. Ez al dira arriskuak hartzen beste egoera batzuetan, adibidez, diktaduretan?
9. Bere egitura orokorraren eragile dominantea biolentzia den mundu batean, arrazoiaren aldarriek ez dute neutralizatuko sen biolentoen oldarra.
10. Fusilamenduko horman, tiratzaileak aitaren egin du, penaltia jaurtitzeko bezala.
11. Bai dela erraza irabazlearen apaltasuna!
12. Hilakutxak graziosoak dira. Beltzak, txokolatezkoak, franbuesazkoak, bainillazkoak ... Barruan, gizon alai bat daramate.
13. Suari putz egitean, labezomorro bati erreparatu nion. Saiatu nintzen Samsa soil bat zela pentsatzen, eta geroztik ezin dut Kafka sukaldetik atera.
14. Eskertzen nuen ilargia hain isil pasatzea. Kolorean igartzen nion zer esan nahi zuen.
15. Oteizak espazio mugagabea desiatu zuen, eta hantxe hasi zen haren kalbarioa.
16. Arteak ezin du zoriontsu izan. Zorionak ez du behar arterik.
17. Nire hilarria: «Gizajoa! Ezin izan zuen jasan puntu bare bat izaterik».
18. Atsegin inefable bat: intxaurrak txikitu, Stravinsky entzunez.

BOST

1. Has zaitezke pentsatzen etxea infernu txiki bat dela, haur bati bertara itzultzeko pozik nabari ez zaionean.
2. Zer axola du benetan gertatua ez izateak, gertatutzat senti badezaket?
3. «Galdera handiek» galdera errepikatzeko bakarrik balio dute.
4. O, felix inventio! Pentsamenaren jarduera detektagaitzaz jabetu nintzenean, nire ahalbide mentalak asko handitu ziren.
5. Bateko Urrearen distira ilunabarreko horizonte mesetarioan, ihes egin berri zaren espetxe pentagonalaren gainean.
6. Hilekiko elkarbizitza erraza eta atsegina da.
7. Badakizu itzala ez dela zu gabe ezer, baina, batzuetan, alderantziz sentitzeak salbatzen zaitu.
8. Dena ulertu duzu. Unibertso guztia. Berdin hilko zara.
9. Hamaika galdera handi baino nahiago dut erantzun txiki bat.
10. Txakurrak hizketan ikas lezake, baina ez putz egiten.
11. Fusilamenduko horman tiratu dizute, eta ez dakizu amaitu den ala graziazko tiroari itxaron behar diozun.
12. Antzinatora jotzeak ez du askorik konpontzen, mitologia ez baita giza miserien apainketa besterik.
13. Arrazional izatetik dator irrazional izatea.
14. Ez dut nahi halako adeirik non azalpen guztiak emango zaizkidan, axola ez didaten gaietan.
15. Gudu-zelai suntsituan panpina gorri-ilun bat. Iruditu zait kasik merezi izan zuela gerra galtzeak.
16. Horizonte gabe, bobedarik ez. Edertasun fetala. Bakarrik ez banengo, izutuko nintzateke.
17. Ez dakit badiren, baina aurpegi triangularreko felidoak ez ditut maite.
18. Hiletak hain ez-gogoko nituen ezen pentsatzen hasia bainintzen neurera ere ez joatea.

SEI

1. Ez al zenion aitari ostikoka egin amaren sabeletik?
2. Oroimena, sarritan, txakurkume bat da. Prendarik zirtzilenak ateratzen dizkizu atarira.
3. Ez dakit zergatik bilatzen nuen kontsideratua izatea, batere axola ez zidatenen aldetik.
4. Ergelak ugaritzea komeni da, zentzudunen proportzioak gorputz bat har dezan.
5. Zu gabe ezin naiz bizi. Ba, hil zaitez!
6. Moztu! Ez da igartzen amodioa ala epilepsia den.
7. Maite dut heriotzaz pentsatzea, baina ez hartaz mintzatzea. Pentsatzean, neure baitan doa dena. Mintzatzean, zure begietan ikusten dut.
8. Heriotza ulertzea erraza da. Onartzea da zaila.
9. Hara! Kalean plaza bat libre. Premia gabe sartu naiz, aparkaleku bat aurkitzearen poza sentitzearren.
10. Heriotzari buruzko ikuskerak hainbat dira nola diren hura ez ulertzeko moduak.
11. Altuben behera, era suizidan aurreratu nau. Neu ere suizida jarri eta Baranbion harrapatu dut, bazterraren kontra. Dios! Neure ordeztu hil da.
12. Ahoskatzen ez dutena idazten dutelako, frantsesak ergelak direla dioena ez da konturatzen euskaldunok ergelago izan gaitezkeela, idazten dugun guztia ahoskatzen dugulako.
13. Oso zaila da gehiegi daukazunaz araberan gozatzea.
14. Errealitatean sakontzea diotenari hartatik libratzea ulertu behar zaio.
15. Azkenean, heriotza ez da iristen sentsazio bat izatera ere. Oso inprobablea da uneaz ohartzea.
16. Posibilitatean setatzen bazara, lortuko duzu delirioren bat.
17. Dedukzioak ez dauka zentzurik, konprobatu ezin den tokian.
18. Pentsatzen dut, beraz, naiz. Banaizela baitirudi, pentsa dezadan zerbait.
19. Naiz, beraz, pentsatzen dut. Ezin duzu «naiz» esan, pentsatu gabe.

ZAZPI

1. Sentimenduen fatalitatea. Pozaren gailurra azkar jotzen den bitartean, okerrean beti dago okerragoaren beldur bat.
2. Ez dakit. Nik neure oroimenarekin bizi behar dut, ez hari buruzko teoriekin.
3. Gure amarentzat, mendi hartan ez zegoen poesiarik.
4. Nola moldatzen zara bigarren esku gabe? Zeu bigarren buru gabe bezala.
5. Greziako edo Bibliako mendi miragarriek ez zuten lortu, nire golko isil, ia apalduan, Bizkargi mendiaren lehentasun afektiboa desplazatzerik.
6. Estatu baten batasun «hautsezina» hain da printzipio arrazionalki irrazionala ezen ezin baitzaio aurkitu arrazoirik, armen indar historikoa besterik.
7. Basoen isiltasuna. Bakardadeak ilunetan hartzen duen dimentsio suprahumanoa.
8. Gau izarratuak lasaitzen nau, badakidalako izarrek ez didatela erasoko.
9. Ez nau kezkatzen memoriak huts egiteak, husteak baizik.
10. Kanten pentsamendua baino gutxiago ez dut miresten bere jaiot-hiritik irten gabe hil zela. Behin, behintzat, gomendatuko nuke irtetea, itzultzearen poza Ezagutzeko.
11. Izar bat ilargiari segika, ume atzeratua amari bezala. Utzi malko bat bidean.
12. Agureak bere ezgaitasun progresiboari gustua hartu dio. Ez du bereizten adei inguratzailea erruki terminaletik.
13. Jainkoa itzarrik badago, a zer logura eduki behar duen!
14. Norbere buruari barre egitea nartzisismoaren forma bat da. Benetako umorea neurtzen da besteei norberari barre egitearen graziatik.
15. Izarrak hain urrun daude ezen ez baitira existitzen.
16. Eskerrak baden uruntasun ezabatzaile batetik begiratzea, mundua basakeria inexistente bat bezala sentitzeko.
17. Denboraren misterio guztiak datoz denbora amaitzearen ebidentziatik.
18. Lorerik ederrenak inork ikusi gabe zimeltzen dira.
19. Loturak askatu egin behar dira, ez hautsi. Askatzeak denbora behar du.

ZORTZI

1. Hitzik gabe ez dakit pentsatzen. Pentsatu gabe ez dakit sentitzen.
2. Emakume baten muturrekoak min handiago emango zidan hamaika lorpenek atsegina baino. Baziren lorpen bategatik hamaika muturreko hartzeko prest zeudenak.
3. Lirio ikusgarri horiek bezala. Bizpahiru aste ezin ederrago, eta urtean zehar, ahaztutako porruak irudi.
4. Zubia erortzean, urertzak bertan geratu ziren. Urrun.
5. Susperraldian ala heriotza asistituan gaude?
6. Ondo al zaude? Buff! Ez nago definigarri.
7. Nerabezaroak liluratzen nau, nirearen eztanda barruan gelditu zelako, zain.
8. Bachen musikak gizateria apenas mantsotu zuen, baina unibertsoari kaoseranzko motiboak asko murriztu zizkion.
9. Sotana uztean jabetu nintzen zer txakil, zer soil gelditu nintzen. Apaiz jarraitzen nuen, baina ezer ez zen berdin.
10. Garabi-kolpe batek zuhaitza arabazozoetatik biluzten duen bezala, barre-
eztanda batek komunikazioaren adar guztiak libratu zituen.
11. Gaua, Lekeition, ez da fenomeno soil bat. Gaua, Lekeition, deitate bat da.
12. Sentimendu positiboekin bakarrik zaila da menperatzea sen ganberroa noiznahi saltaraz dezakeen talde bat.
13. Beti intrigatu nau, dezepzio puntu batekin, zer legek eragiten duen, iristea hainbeste kostatako tontor batean, gero hain denbora laburra egitea.
14. Txerria izango da animaliarik soziabileena, nondik esplika baitaiteke zergatik daukagun larrua haren antzekoena.
15. Hain aurrera jo genuen ezen, itzuli beharra gertatu zenean, bidea ezabatua baitzen.
16. Iraultza ez da posible, baina beharrezko da.
17. Higuin dut biolentzia nabarmendu gabe egin ezin den artea.
18. Everestera iritsi eta berehala beherantz, erratu balira bezala.
19. Ahate bat alboz marraztu duzunean, haurtxoak dio: «Eta beste begia?».

BEDERATZI

1. Bolada luzeko beldurren nahastura korrosibotik hain era alprojan askaturik aurkitzeak depresiora jaurti ninduen.
2. Bere kapa, solideo, galtzerdi gorri, besaulki eta oihalen granatean, kostatzen zitzaidan bereiztea gotzain elfo haren tipula ilun koloreko eta betaurreko lodiko aurpegi ia esferikoa. Otsagabiakoa.
3. Oraindik ez nuen ulertzen nola ilargi erdiak egin zezakeen itzal osoa.
4. Maitasunaren onena bere posibilitatea da.
5. Ez dakit zein den arriskutsuena, botereduna ala bila dabilena.
6. Kostata harrapatutako eulia leihotik bizirik jaurti dut. Ez da izan bihozkorra naizelako, hura ahurrean txikitze higuinagatik baizik.
7. Bi zuhaitz-lerroren sarrera-arkua: «Herio Etorbidea zeharkatzera zatoz». Harago beste arku bat: «Zeharkatzen ari zara». Harago: «Ari zara». Han: «Zara». Zer polita! Hor al zaudete?
8. Pentsatzea maite dut, baina besteen pentsamenduak ez zaizkit interesatzen, nire pentsamenduak Ahaiei ez zaizkiela interesatzen susmatu nuenetik. «Zelan bizi gara?» eta horrelako enigmetan diluitzen zen solasa.
9. Zuhaitz milenario baten aurrean belaunikatzen naizeneko emozio mitikoa ez da bere iragan kasik hasiera gabeagatik, baizik pentsatzen dudalako nire izateari nasaiki biziraungo diola.
10. Torturen existentzia ukatzen dutenak ez dira gaiztoak. Kolaboratzaileak dira.
11. Ekiloreak, eguzkitan, niri jarraitzen badit, zer pentsatu behar dut?
12. Zein da kamalehoiaren kolore naturala?
13. Izar bat aski dut bakarrik ez sentitzeko, baina izarra bera ni baino bakarrago dago.
14. Dohatsua ohitura, zeinari esker beti dakigun zer egin.
15. Bi beltz kolean doaz, kontulari. Zuri batekin gurutzatzean, isildu egin dira.
16. Apaizok inon traban ez aurkitzeko inkontzientzia kasik genitala genuen.
17. Harritzekoa zen nola edozein lekeitiar, gazteen zein gaiztoen, edozeri uzteko prest zegoen, «gure Lekeitio ederra!» entzutean.

HAMAR

1. Gerran, kontrako bandokoek hil nahi zaituzte eta zure bandokoek bizirik libratu nahi dute. Norbaitzuek hil behar dutenez gero, bat zu izatea ondo etorriko da.
2. «Ulertu nahi dutenentzat idazten dut» esan nuen, eta lagun batzuk galdu nituen. Zerbait leundu guran, «ulertzen dutenentzat» esan nuen, eta lagun guztiak galdu nituen.
3. Postmodernoa da modernora iritsi ezin dena.
4. Erromaren historia handiosak damaidan atsegin nagusia da ia inor inportanterik ez zela berez hil.
5. Errukiak ez du ospe onik, baina konturatu naiz maitasuna baino fidagarriago dela. Egoismoaz hurrengo, noski, hau aitortzea inelegantea ez balitz.
6. Niri ez zaizkit interesatzen on-onak, jenioak baizik.
7. Oiz, Everest. Humanoa, suprahumanoa. Ni humanoa naiz.
8. Ederraren barruko piztia itotzera zihoan begirada agonikoan, krokodiloaren ahotik burua doi-doi ageri zaion zebrarenean bezala.
9. Eseri da aulkian, baina eskuekin ez daki zer egin. Egunsenti kondentsatua dirudi.
10. Ederra da bi ordurako maitemintzea.
11. Gozatzen dut gauzak galtzen, topatzeko zerbait edukitzearren.
12. Itsuari ispilua edo hankamotzari oinetakoak eskainiz ez duzu ongia ezertan emendatzen.
14. Begi bakar bat non kokatu ez legoke dudarik, baina pareta izatekotan, ipini behar ziguten bata aurrean eta bestea atzean.
15. Kausa-efektuen teoria nagusitu zenean, freskuratik igartzen nuen brageta zabalik neramala. Besteena erraz ikusten da, baina norbetea!
17. Hementxe, denborari bultzaka. Hiltzea ere ez baita erraza.
18. Gaueko elurtzan, argitasun oso bat, eta itzalik ez.
19. Ez zegoen Everesteraino joan beharrik, eguzkiak goitik behera jotzen duela jakiteko.
20. Naturaren kapritxoa izan zen izaki arrazionala sortzea, irrazionalki jokatzeko.
21. Sentitzen ez baduzu, ez zara bizi. Sentitzen baduzu, sufritu beharko duzu.

HAMAIIKA

1. Sormena aharrausia bezalakoa da. Sakonago eta lehenago eskatzen du hurrengoa.
2. Amodioan, gorputza errendi daiteke, baina sentimendua ez da asetzen.
3. Unibertso osoan egotea lortuko bagenu, berdin ginateke finituak. Beste pintxo bat!
4. Kontuz bere buruaren bila dabilela diotsunarekin. Zeure bila ibil daiteke.
5. Hilen maitasuna segurua da. Badakizu urrunago ez direna joango.
6. Amodioan, posibilitate erreala zoriongarriago da errealitatea bera baino.
7. Txapatxoa erakutsiz, esan zidaten: «Poliziak gara». Halako tonuan nola esan bailuten: «Paseko usoak gara».
8. «Jainkoa zergatik dago isilik?». Galdera larriagoa litzateke txoriak zergatik isildu diren.
9. Larritu naiz, ez hainbeste txoriak isildu direlako, baizik isiltzea «erabaki» dutelako.
10. Hain bide luzeak hartzen nituen non bueltan denak itxita baitzeuden.
11. Perretxiko guztiak dira jangarri. Batzuk askotan, batzuk behin.
12. On da hegaztiak adimengabe izatea, batzuek ezingo bailukete jasan euren edertasunaren kontzientzia.
13. Lehen gizakiak gerizaren kontzientzia lehenago izan zuen bere buruarena baino.
14. Jakinduria da zer den ahanzgarri jakitea. Ia guztia.
15. Egitea baino desegitea errazago dela, baina niri prakak janzteak gutxiago kostatzen zait erantztea baino.
16. Neure neurriko ibilerak maitatzera zentzatu nintzenean, ohartu nintzen, nire gogoko lekuetarantz, bideak azkar amaitzen zirela.
18. Soinekoaren fintasun labain eta freskoan, haragiaren berotasuna nabari nuen. Ez nintzen errekonozitzen neure eskuan, eta eskua zen nintzen guztia.
19. Ez uka errakuntzari zorion bihurtzeko ahala, bilatze berariazkoek hainbestetan huts egin dutenean.
20. Zergatik behar dugu «horretan utzi» hobeto uzteko modua duena?

HAMABI

1. Utz nazazu posibilitate erreal baten sentipen gozoan. Utzidazu gorde zaitzadan desioz kargaturiko ilusio bat bezala.
2. Gustatzen zaizkit emakumeen soinekoak, baina hain gabe ere begiratzen diet.
3. Maitasunean dena eskatzea bezalakorik ez dago, ezer gabe gelditzeko.
4. Zein erraza izan zen ezina!
5. Nahi zutena egiten utziz gero, oso edukatuak ziren.
6. Gorpu-gela probintziala. Guztiak bi ilaratan, izara zuriz estaliak. Gorpu batek aurpegia agerian du eta esku bat ohatilatik dilindan. Alde egiteko unearen zain bezala.
7. Zein da denbora egokia, ikusi nahi ez den hilotz baten aurrean?
8. Adimenaren aurreko eternitate hartan nork zekien bazela edo ez zela Jainkorik?
9. Eternitatea erdibitu nuen. Erditik kendu nintzenean, bi erdiak berriz batu ziren.
10. Jendea oso aditua da besteen gaitzetan. Harrigarriena da gero denak hiltzen direla gaitz berdintsuekin.
11. Ezer ez itxarotea erabaki nuenetik, osoago sentitzen naiz.
12. Ez landatu zuhaitzik nire oroimenez. Zuhaitz guztietan nago.
13. Hortz gabe munduraturik, hozka joan nahi dut mundutik.
14. Eguzkiaren irteera amesten duzunean, izarrak ezabatzea desio duzu.
15. Zoriona da ideia komertzial bat. Nik poza nahi dut.
16. Gehiegi dakit ahal dudan gutxirako.
17. Bere izatea frogatzen uzten ez duena izaki ahula da.
18. Zer du fideo-zopa honek? Nire haurtzaro guztia.
19. Nire itxaropenak ez du huts egiten. Ez dut itxaroten itxaron behar ez denik.
20. Denok hildakoan nork erabakiko du non gauden?
21. «Hautespen naturalak», Darwin, ez al du esan nahi «hautespen biolentoa»?
22. Beharbada ez dut jakin bizitzen, baina jakin dut bizi nintzela.

HAMAHIRU

1. Sinesten baduzu ez dena, galduko duzu badena.
2. Jendeak arrazoitzen dakien moduan pentsatuko balu, mundua maitagarria litzateke.
3. Izaki zentzugabea izaten aise ikasten da.
4. Erlea ez da hurbiltzen lorera honen politagatik, usainagatik baizik.
5. Poliziak ere badu bihotza, baina ez da komeni erabil dezan.
6. Unibertsoa bakardade ondo banatu bat da.
7. Badakit zenbat geratzen zaidan. Gaizki bizitzeko, asko. Ondo bizitzeko, gutxi.
8. Horizontez inguraturik nago, eta neu ezin egon horizontean.
9. Gauza zailak egiteak izateari zentzu bat damaiola dirudi.
10. Pentsatzen dut, badakidalako pentsatu gabe ez dela bizitza, nahiz eta jakin, pentsatuz, oso zaila izango dela.
11. Oso zaila da, agian innoblea, optimismoa gomendatzea ez dela gertatuko badakizun zerbaitetan.
12. Begiak ateratzen badizkidazu, zeureetatik begiratuko dizut.
13. Zure itzala mugitzeak ez du esan nahi mugitu zarenik.
14. Inteligentzia emozionala baino nahiago dut emozio inteligentea.
15. Besteek badakitena jakitea erloju bana edukitzea bezala da.
16. Ez dago fikzio-zientziarik, erlijioak bezalakorik.
17. Itsasoaren ondoan estilo piktoriko guztiak daude. Arrainek horrexegatik dirudite izaki absortoak.
18. Gizakia da izaki arrazional bakarra. Hots, zentzuz pentsatzen eta hain gabe jokatzeko dakiena.
19. Norbere buruari barre egitea oso sana omen. Egin barre hori esan duenari, eta ikusiko duzu noraino iruditzen zaion sana.
20. Komunikazioa da interesatzen ez zaizun asko entzutea, interesatzen zaizun zerbait esan ahal izateko.

HAMALAU

1. Izaki arraroa naiz. Jendartea behar dut, axola ez didaten gauzez hitz egiteko.
2. Konpromiso larri baterantz noanean, desbide guztiak iruditzen zaizkit zorionbide.
3. «Zure irribarrean zeure arima damaidazu». Mesedez! Gorde arima zeuretzat, eta eman irribarrea.
4. Askatasuna da gehienekin batera joatea garrantzi gabeko gauzetan, eta gehienek alderantziz, garrantzizkoetan.
5. Ardiari kenduko diozu bulunba, baina ez balaka.
6. Asko pentsatzearen ondorio onetako bat da gutxi pentsatu behar dela.
7. Tiro bakarra nahikoa den tokian, zergatik jasan behar dugu tarratada amaiezin bat?
8. Ken biolentzia eta hil duzu zinea.
9. Mundua nitaz mintzo dena da. Bestea fikzioa da.
10. Negarra izan daiteke isila edo ozena. Malkoak isilak dira.
11. Amorratzen nau kalifikazio zehazgabeak, ohartzen naizenean. Ohartzen ez naizenean, poesia iruditzen zait.
12. Giltzurri baten zain dagoena istripuen urritzeak larritzen du.
13. Ez zait gustatzen pikondo baten gainean harrapa nazaten, bai baitakit pikuak jatean naizela tximinoen antzekoen.
14. Gorilaren eboluzioak oso luzea behar zuen, bera hain handia eta belarri hain txikiak garatzeko. Belarriek hil arte darraite hazten.
15. Karibuari armairu artistiko baten eskeletoa ipini zioten buruan. Eboluzioa, batzuetan, traba izugarria da.
16. Ilargi erdiak zergatik pozten nau beti, eta osoak tristatzen, ia beti?
17. Fikzioan nabilenean, errealitatea ez zait interesatzen. Errealitatean nabilenean, fikzioa ez zait interesatzen
18. Jaun txit goren! Bakarrik jakin nahi nuke bi heriotz zigorretatik zein aplikatuko zaidan lehenen.
19. Garbitasunean une bat iristen da non zikinak ez baitu molestatzeko, tupust egin arte. Ostikada bat eta aurrera. Une hori, batzuentzat, jaiotzan hasten da.

HAMABOST

1. Inoren gaitzez gozatzen duenak dena du alde zoriontsu izateko.
2. Bizi-zentzu bat izan daiteke hiletak saihestea, bizia maite duzulako. Saiatzen naiz, baina jende gehiegi hiltzen da.
3. Ez dut ulertzen pentsamendu errebelde bat zergatik biguntzen edo aldatzen den adinarekin, nahi edo beldurgarri zitekeen guztia (ia guztia) joana denean.
4. Susmoa daukat ondo pentsatzen ikasi nuela, pentsatzea alferrik zela ikusi nuenean.
5. Ez daukat gogorik kontu ulertezinetan saiatzeko. Ilunean sakonduz, ilun gehiago pilatzen da.
7. Galdera bat mendeetan errepikatu izanak ez du esan nahi garrantzitsua denik, funsgabea dela baizik.
9. Orain arte, bere ahalguztiak ere ezin izan du Jainkoa bakartasunetik salbatu.
10. Itxaropen zapuztu bati beste itxaropen zapuzgarri batek darraio. Horrela, beti da itxaropena.
12. Ezinak gustuak aldatzen ditu. Ahalak, askoz gehiago. Ezinak on dezake gizakia. Ahalak, nekez.
13. Besteen gaitz handiek ez naute gehiago abailtzen neure gaitz txikiek larritzen nautena baino. Limitazio horren azpitik, solidario izan naiteke immolazioraino.
14. Oso ondo konpontzen naiz neure pentsamenduekin, kontrakoenak barne. Gero pertsonekin topo egitean, gutxik balio didate zerbait.
15. Bat gaizki dabilenean, gutxi animatzen du beste bat zer ondo dabilen entzuteak. Nik, badaezpada, neu baino gaizkiago dabiltzanak bisitatzen ditut.
17. Izugarria da gizartearen lagundu nahia, ezer egiterik ez dagoenean.
18. Gosea berdindu ahalko duzu, agian, baina hobeto bizi direnak ez dituzu bistatik kenduko.
19. Hiltzeko beldurra? Beste batzuk ez al dira hil?
20. Jarrera positiboak edo negatiboak aldarte kontuak dira. Errealitatea beste zelai bat da.
21. Mundua asko edertzen du molestatzen zintuztenak badoazela ikusteak.
22. Bizitzaren zentzu bat izan daiteke hiletak pozik itxarotea, norabait joateagatik.

HAMASEI

1. Talentuak lana behar du, baina lanak ez du talentua bermatzen.
2. Aurreikuspen guztiak egin dituenak abantaila osoa dauka bat asmatzeko, eta ia guztiak huts egiteko.
3. Ez dut uste porrotak merezi duenik zerbait ikasteagatik. Nahiago dut porrot posibletik ikasi.
4. Komunikazio zirkular horiek bezala, non ohartzen baitzara denak zain daudela zuk noiz amaituko, bakoitza berea kontatzen hasteko.
5. Zerbaiti buruz denek soluzio bat daukatenean, ez dago soluziorik.
6. Arrazoi jakin bat gabeko emozio-aldaketak hormona baten gorabeherak direla azaltzen dizutenean, gogorra da irenstea laborategi kimiko bat zarela.
7. Jainkoa animalia infinitu bat da. Hots, Jainkoaren ideia ahultasuna da handiegia dela.
8. Gauza txikiak amorru handia eman dezake. Goiz izoztu batean euli bat muturretatik pasatzeak senetik ateratzen nau.
9. Gudu guztiak galdu ditut, baina bitarteko itxaropenak existitu dira.
10. Mundu zuzen bat ezin itxarotera iristen bazara, beti geldituko zaizu hartaz burlatzeko atsegina.
11. Esku batek ez ditu egiten be eskuren lan erdiak.
12. Norbaitek zerbait larria kontatu badizu, ez aipa beste larritasun batzuk. Ez dizu kasu bat kontatu.
14. Ezjakintasuna oso kreatiboa da, gai baita edozer modifikatzeko.
15. Nirekin ondo konpondu nahi baduzu, bete ezazu Erasmusena: «Benetako adiskidetasuna iristen da biren arteko isiltasuna atseginez doanean».
16. Biolentzia badela jakitea ez al da aski min, ikustera ere behartu gaitzaten?
17. Arazo guztiak konpontzen dakit, neureak izan ezik. Besteei berdin gertatzen bazaie, munduaren izatea aski ulertuta dago.
18. «Niretzat, Jainkoa da izatearen sakontasuna» –irakurri nion pentsalari handitzat zegoen bati. («Para mí, Dios es la profundidad del ser»). Ideia bat al da hori?
19. Pertsona negatiboek abailtzen naute. Pertsona positiboek akitzen naute. Ezer transmititu nahi ez dutenekin bakarrik konpontzen naiz ondo.

HAMAZAZPI

1. Kontatuko bagenu zenbat gauza egin ditugun ezetz ez esateagatik, ohartuko ginateke gure nahimen librea ez dela hainbestekoa.
2. «Kantatzen duen herria ez da hilko». Hilak diren herri guztiak euren bikaintasuna kantatzen joan ziren.
3. Abiaduran ezin dut pentsatu, eta pentsatuz bizi nahi dut.
4. Azkar joateak ez dit bermatzen azkarragoek harrapa ez nazaten.
5. Begira zaitez beren haurtxoaz mintzo direnengandik. «Haurtxo» hori txakur bat izan daiteke.
6. Gaizki hasten dena gaizki amaitzen? Gaizki hasten dena ez da amaitzen.
7. Ez dut maite neure pertsonaz mintzatzerik, ez baitago gauza etsigarriagorik ezaxolaz entzun nazaten baino.
9. Everestetik zer irtenbide dago?
10. Eroseean esaten diren gauzak ez dira inteligenteak.
11. «Bularrak bezalako dunak» ala «dunak bezalako bularrak?».
12. Atxiki eguna. Egun hauxe! Ez itxaron ezbehar batek irakatsi arte.
13. Marrazo bertikalki tolestuak bezala sartu gintuzten. Zutik irautea errazago zen erortzea baino.
15. Olatuak erasoan haitzen kontra. Zenbat ahalegin alferreko egiten duen itsasoak!
16. Gerrari eta gerraondoari irmo eutsi ziona infarto bulgar batek akabatu zuen.
17. Eguzkia bakarrik zegoen parean, izugarri handi, bere despotismo naturalean.
18. Ezereza hutsa bada, pentsa izozturik badago.
19. Garrasi batean jaio zen, nonbaitik ostikoka jaurti balute bezala.
20. Ilargia bakarrik gelditu zen, Nietscheren bibote erako lainoska batekin.
21. Haurrak barreka jaiotzen hasi ziren, emanaldi komiko batetik irteten bezala.
22. Bizikletaren aurretik hegazkina? Hegoak gurpilen aurrekoak dira.

HAMAZORTZI

1. Okerra ez da ez-jakintza, gaizki-jakintza baizik. Okerrena, dudazko jakintza, dudak errorea baitakar.
2. Ene Jainko! Ordu erdiko existentzia aitortuko dizut, ataka honetatik libratzeagatik.
3. Nork esan behar zidan iluntasuna hain koloretsua izango zenik!
4. Biharamun goiza eternitate bat jauzian bezala iritsi zitzaien. Niri goizero gertatzen zait hori.
5. Oroitzen naizena naiz.
6. Barrua askatuta dagoenean, era asko daude kanpoa saihesteko.
7. Tabike haiek helburu pentsatuz baino areago, bolketera eginak ziruditen.
8. Nire bizitzako bidaiarik zoragarrienak seminariotik etxeranzkoak izan ziren. Joaten-joaten, bidea luzatzea atseginik handiena luzatzea zen.
9. Gauza jakina da ametsa ez dela gauzak ordenan eramateko egina.
10. Ikusgarria eta ikusia zela bazekiena, bere edertasuna inorekin dantzatzeko baino goragotik planeatzen zuen.
11. Oraintxe ere azala tiran nabari dut, orduan baino hamaika zimur gehiago eduki arren.
12. Hemen datorrena hartu behar da, eta ez datorrena ere bai.
13. Bai, Herio! Zatoz nahi duzunean, baina isilik.
14. Hilan identitatea ez da besterik bizien sentimendu bat baizik.
15. Botere zero-lurtarrak nola batzen diren, Burgosko katedralean daukazu argien. Hilobi eta hilarri amaigabeak, elkarbizitza organikoan: konkistatzaileak, erregeak, erreginak, apezpikuak, kondeak, kalonjeak, infanteak, infantak, kardinalak ... Era guztietako handienak, Biolentzia guztien selekzioan.
16. Adinak ez du banitatea txikitzen, bai umiliatzen.
17. Negar ere umorez egin daiteke.
18. Poesia lirikoaren jatorria zentsura saihestea izan zen.
19. Ez mirets inor, imitagarri iruditzen ez zaizunik.

HEMERETZI

1. Zerbaiten amaia ez da beste zerbait. Heriotza bizitzaren amaia da. Gutxi baderitzozu, asma zerbait.
2. Nire oroimena hain dago kargaturik non iruditzen baitzait betidanik bizi naizela.
3. Bizitzaren zentzua bizitzea da. Natura tautologia da.
4. Gauza sanoak jan eta osasuntsu hil.
5. Oroimenean gauzak ez dira iraungitzen.
6. Ez dago hizkuntza indartsurik, inperio bat izan ez denik.
7. Badakit obedituz maiteago naizela aginduz baino.
8. Sinesteari utzi badiozu, ipuina gorde ezazu.
9. Gogaita bezalakorik ez dago zerbait entretenigarria asmatzeko.
10. Heriotzaren gabezia nagusia da bera ezingo dugula nabaritu.
11. Eguzkia badator, eta egun osorako dator.
12. Bizitzeko jaio gara, ez, hiltzeko. Heriotzaren onura bakarra da kontzientzia indartzea ezen bizitzak ez duela oharkabea igaro behar.
13. Pentsalariek eta poetek ez dakit zer aurkitzen duten infinituan.
14. Haritz, pago, agin, urki. Beti geldi, beti pozik. Emaidazue zeuen egote jakintsua. Seguruenik, zorionsua.
15. Egutegi berririk? Eskerrik asko. Iazkoa daukat.
16. Hasieran hidrogenoa zen, hidrogenoa hasiera baitzen.
17. Hain maite zuen bizia ezen hiltzeko penak eraman baitzuen.
18. Bizitza mitikoa zoragarria da, bizitza erreala ondo doanean.
19. Aberatsak ez gara, baina bai ordu batzuetan pobreak izateari uzteko lain.
20. Ez zait kostatzen gizaseme, emakume ala biak izatea. Niri kostatzen zaidana da gizakume izatea.
21. Jainkoa badela sinesteko beste arrazoi dago Jainkoa naizela sinesteko.
22. Eliza gotikoa. Zer den ez dakit, baina adjektiboa gustatzen zait.

HOGEI

1. Etxean beti dago zeregina, inurriak bazkatu eta abar.
2. Bai lasaitasuna, lapurrak zirelakoan, esteen zarata izan dela konturatzea!
3. Zain dagoenari, azkura guztiak batzen.
4. Lirio ikusgarri horiek bezala. Hamabost egunez ezin ederrago, eta urtean zehar, ahaztutako porruak irudi.
5. Espazioan bakarrik banengo, neu nintzateke horizonte guztia. Beldurgarria!
6. Ama! Aitari burua joan zaio! - Nora?
7. Gehiago ez dut ikusi, baina musua ez da amaitzen.
8. Ez eman patuari berak eskatu baino gehiago.
9. Lehoia adimendun bihurtu balitz, lehoiago izango zen. Naturak egina du proba hori gurekin, eta hauxe da emaitza.
10. Eraso defentsaren aurrekoa da beti.
11. Naturari izaki berria axola zaio. Zaharrentzat ez dauka begiramenik.
12. Gure kaiolak kantatzeko ere ez al du balio?
13. Eman aurretik lurrari, hilkutxa zabalik jarri, azken bertsoa kanta deiodan zuen negarrari.
14. Hi azukrontzi jarri haute banaketan, begiak euliak lez ibiltzeko bertan.
15. Loreak ere joaten ditun merkatura.
16. Maitatzekotan, badut nor maite, harrietatik hasirik.
17. Ez hasi maitatzen, nor ez maitatu ez badakizu.
18. Eman tiro bat eta lasaiago joango naiz.
19. Egun berria markatuko dut zure gauerdiko begian.
20. Ikusi nuen ilargia eta maitatu nuen, zure ahoa zelakoan.
21. Maita nazazu gutxiago eta goza nazazu gehiago.
22. Ene izar maitea, maite ederrena, ez bazina gugandik hain urrun zaudena.

HOGITA BAT

1. Zertako dut izar bat zero gorenean, ez badut iristerik betiraun denean?
2. Lehen aldiz joan nintzenean, zuhaitza han zegoen. Mende erdira, zuhaitza han dago. Susmoa dut, betiko joan nadinean, han egongo dela.
3. Gizarte justuena ere oso gizarte injustua da.
4. Gure aditza sinplifikatu ezik, euskarak ez du etorkizunik.
5. Izarren salda urdina edanda, bizi naiz gustura.
6. Bekoki beltza jarrita ez da argitzen iluna.
7. Ni hiltzen naizen gauean, behintzat, eizue lo lasai.
8. Errekarik ez da inoiz itzultzen sorburura.
9. Oilarrak uste du, berak jo ezik, ez datorrela egunik.
10. Toki batean gaude, non bidali gaituztenek ere ez baitakite non gauden.
11. Gure azal belaxka honek inboluzio bat dirudi. Zapaburutik hurrengoa.
12. Akrobazietan genbiltzan krater baten gainean.
13. Ez dakit. Egin daitekeena egiteak baliteke eragitea egin ezin denari.
14. Kalabaza koloreko jantoki hezean, berrehun buru txiki, isil-isil, zopa gris baten gainetik tortilla albino bat jaten.
15. Borrokak eta halako dema dohakabeak saihestearren, hantxe ikasi nuen nesken gonapean sartzen, ezkutatzeko.
16. Nire lehen sentsualitate kontzientea uste dut diruarekiko harreman intimoa izan zela.
17. Hementxe, jauna, alimentu sanoak jaten gaixotuta.
18. Bai, jauna, bai. Jainkoa emankorra da, baina aukeran, gutxitxo ematen du.
19. Heriotzak ez ninduen beldurtzen. Bai haren irudiek.
20. Maite ditut denetik dakitenak, baina akitzen naute denetik gehien dakitenek.
21. Hemen, hiltzeko ere itxaron egin behar al da?
22. Jainkoa neure gainean dabilela uste dut, oso-osorik.

HOGEITA BI

1. Egunez sartu, egunez irten. Sartu ginenean, artoak ereiten ari ziren, eta irten ginenean, artoak erneta zeuden.
2. Niretzat nahikoa da behin bizitzea. Gutxi al da?
3. Naturak asko laguntzen dio zaharrari denbora betetzen. Gauza bat egiten saio luzea behar, eta beste hainbeste, zuzentzen. Oker zegoela konturatzen ere izango zen tarte bat.
4. Beldurra bai, baina nik ere beharko dut lagun bat, ezta?
5. Hilotza Zumaiaiko tanatorioan egongo da, tente.
6. Umeei ogirik ez daukazula esatea gogorrago da norberak harria jatea baino.
7. Bizitzaren luzatze txiki batek merezi al du pairatzea zaharroi eragiten zaigun beste neke?
8. Beti baino nahiago dut neuk nahi dudanean.
9. Ez daukat azkurarik, baina eginda utzi nahi dut, behar denerako.
10. Ergela aurrean jartzen da, denek ikus dezaten. Azkarra, atzean, denak ikus ditzan.
11. Sufrimendu gabe ez dago literaturarik. Gutxien-gutxienik, norbaitek eman behar dio jaten pikaroari.
12. Lanari uzteko ez dut behar heltzeko adina arrazoi.
13. Denen gustua egitea ez da hain zaila. Nork hartu behar du txartzat Jainkoa ona dela, maitasuna lagungarri dela, gorrotoa lagun txarra dela, edo Jesukristo gorria dela, Arantzazuko kriptakoa bezala?
14. Hilak kanpoan dabiltzala gutxik sinesten du, baina beti dago zalantza barruan ez ote diren zerbaitetan ari.
15. Ilargi zuriko gauerdian, ez zegoen epelik hilen hezurretan.
16. Judasek zertarako zuen diru-poltsa hura, gero urkatzekotan?
17. «Gure herria munduko onena da» lehen aldiz esan zuena herritik inoiz irten gabea zen.
18. Bizia sobera dago unibertsoan, planeta koskor bat gorabehera.
19. Ulertzen dut Jainkoak lanari uztea. Handiena da betiko utzi ziola.

HOGITA HIRU

1. Itsasoa baino koldarragorik! Inor ez dagoenean, bazter guztiak puskatzen, eta jendea dagoenean, geldi-geldi.
2. Bi txakur, borroka amorratuan. Elkar jan ondoren, bi isats tente, borrokan.
3. Hau al da hilen errespetua? Ez dute entzuten, eta kantatzen diegu. Ez dute ikusten, eta argi egiten diegu. Ezin dute jan, eta ogia jartzen diegu. Zer dago hori baino burla handiagorik?
4. Denak ez dira amarenak. Ni zaharrena naiz, eta gure ama neuk egin nuen ama.
5. Angulak onak izango dira, baina bat izatekotan, sardinzar bat nahiago.
6. Larritasunak intxaurrondoaren kontrara okertu zuen, almitza jandako txakurra pendizean botaka bezala, ipurtzuloa eztarriraino etorrita.
7. Autodidaktek uste dute eurek dakitena eurek bakarrik dakitela.
8. Gizon ezkondua, bat ere gehiegi.
9. Ahuntzak labe gainean egindako gorotz-pikorrak zabaltzen diren bezala zabaltzen zituen Jainkoak bere grazia eta dohainak munduan.
10. Jainkoak nahi duenean hiltzea bada, nahiago dut berak hil nazala.
11. Zertarako da ehun urtera iristea, berrehun urte lehenago jaio bazara?
12. Hementxe, arre eta iso, baina astoa geldi.
13. Gorilakume jaioberriari agure dekrepito baten antza hartzen diodanean, pentsatzen dut aurreko atzera goazela.
14. Tximeletak xarmantak dira, gogaikarriak ez balira.
15. Eta zer? Ni puta naiz, ez emagalduta!
16. Eguzkiak ez dauka itzalik, zuhaitzek baizik.
17. Tabernatik bueltan, errepidean letrak idazten joaten zen. Eta beti letra berriak.
18. Buruan sartzen bazara, irteera zaila daukazu.
19. Hobe, bai, astoa izan banintz! Astoak ez du hainbeste astakeria egiten.
20. Zoaz, mesedez, mahaiaren beste muturrera, hala ere nahiko gertu egongo zara eta.

HOGITA LAU

1. Azkenean, gizateriak lortu zuen zehaztasun exaktoan orekatzea, non mila milioi goseak hiltzen baitziren, beste mila milioik obesitate arazoak izan zitzan.
2. Baina nik ez dut katuez hitz egin nahi!
3. Munduko onena, hauxe duda gabe! Eta ondoko beste hori, berau baino hobea.
4. Ez ulertzeak asko laguntzen dio komunikazioari.
5. Bakarrik hitz egiteko ere zeresana behar da.
6. Astoak ez du arrantza egiten. Astoak dakien guztia esaten du.
7. Euskara «erraza» dioenari euskara «infantila» ulertu behar zaio.
8. Euskara ez da galduko. Euskaldunek galduko dute.
9. Gure etxea patu lapurrak eraman zuen, ibai handiak gorpua bezala.
10. Bazen zer sinetsi, ez baitzen ezer ikusten.
11. Han zetzan ugazaba, ziria sarturiko barea bezala, aho ertzetik ardoa, behazuna eta bitsa zeriola.
12. Etxea hura ere, hormak erortzeko nagiz tente.
13. Posibilismoa akatsa bada, inposibilismoa krimena izan daiteke.
14. Gure amarentzat, mendi hartan ez zegoen poesiarik.
15. Nola moldatzen zara esku bakarrarekin? - Zu bigarren buru gabe bezala.
16. Itsutasun osoak, beldur estremoak eta furtibotasun totalak oso pausaje antzekoa daukate.
17. Batek atzerantz maiz begiratzen badu, izan daiteke jazarpen bat, edo indabak jan dituela.
18. Zein erraza izan zen ezina!
19. Gauzarik terrorifikoenak ondoen bizi direnek asmatzen dituzte.
20. Zentzua behar al du inork ikusiko ez duen loreak?
21. Oroimena zerbait bada, iragana oraina da.
22. Ez ibil zulo beltzen bila. Zulo beltzak aurpegiak dira.

HOGITA BOST

1. Dalik adierazi zuen: «Zoro baten eta nire artean, aldea da ni ez naizela zoroa». Hark ere bazituen argiune batzuk.
2. Armak dira bakarrik, etorkizun segurua dutenak.
3. Izar horiek batera daude gure begietan bakarrik.
4. Eskerrak badiren ilargiak, Laboaren profila bezalakoak, kapelu eta guzti.
5. Miraria bada zuhaitz berde bat zuhaitzi kiskalian, zer da perikito guztiak zuhaitz berean?
6. Ez naiz nekatu bizitzen, honela bizitzen baizik.
7. Puntu bat iristen da non pentsatzeak pentsatzeko bakarrik balio baitu.
8. Itzala zugandik apartatzen hasia bada, ez dakit zer gomendatu.
9. Optimismoak dezepzio handiak eragin ditzake. Bizitza garantiaz goatzeko, hobe da pixka bat bestelakoa izan.
10. Oroimeneko bizilagunak ez dira zahartzen.
11. Denbora hutsa leize larria da.
12. Zer edan duen ahaztu zaionari ez galdetu zenbat edan duen.
13. Ez esan gaizki zaudenik, ze entzun beharko dituzu ondo egoteko era guztiak.
14. Hara berau, kirofanoan masturbatzera etorria!
15. Han aurkitu nuen neure auto maitea suizidatu guran, ahoa garabiaren amura zuela.
16. Amak: «Kaka dauka!». Haurtxo hanka-okerrak: «Kaka nahi dut, ba!».
17. Ordua edukitzea alferrik da, erlojuari igartzen ez badakizu.
18. Surik baduzu? - Zuri zer axola dizu? - Ba, egia esateko, batere ez.
19. Gure amamak, Karmengo Ama etxean tokatzen ez zen egunetan, idulki hutsera begira jarraitzen zuen errezatzen. Haren katuak orduak egiten zituen begira, zozo batek ihes egin zion langara.
20. Etzaten zara biluzik baratze bateko freskuran, jartzen duzu barea sabel barrenean, eta gainerakoa berak egingo dizu, bere abiaduran. Kostako zaio mugitzen hastea, baina gero, begiak ixten badituzu, Venus ikusiko duzu.

HOGITA SEI

1. Amaren eskutik lurrin-igurtzi ondo neurtu haiek hartzen genituenean, zoriona ibiltzen hasten zen.
2. Orduan jendea birritan edo hirutan hiltzen zen. Orain, eskela, tanatorio, erretze, elizkizun, errauts, olata, urteurren ... Ia beste bizitza bat.
3. Unerik gozatsuen ispiluaren aurreko prestakuntza zen, luzeenean ere inoizosatzen ez zena.
4. Errealitaterik zekenena ezingo du deuseztu hartaz hedatu zen ilusioa.
5. Hilen barbaroa ulertzen da. Zeure gogoko gauzak esaten dituzte. Gogorik ez baduzu, isildu egiten dira.
6. Gizakia da animalia bat, arrazionalki harraparia.
7. Ilargiak forma infinituak har ditzake, baina ez guztiak.
8. Edertasun gorena sinpletasun absolutua da.
9. Beldurrak bazterrei misterio handia eransten die.
10. Galderak sentipen ederregien egiari buruzko zalantzatik datozenean, hobe da bertan utzi. Erantzun zehatzak zapuzgarri gerta daitezke.
11. Zer sentitu zenuen lehen musuan? - Ba, askoz gutxiago lehen horzkadan baino.
12. Gorilak besoak zerurantz jasotzen ditu, gizakiak otoitzean ikasi baino askoz lehenagotik.
13. Oraindik inork ez dit esplikatuko euliek zer on egiten duten sukaldean.
14. Ilargiari zaunka dagion txakurra ez da gutxiago zentzudun hari begiratzen dion poeta baino.
15. Elorri bakartia, lore miragarritz jantzia. Hurbiltzean, plastiko zurizko hondakinak arantzetan.
16. Garrantzi gabeko zerbaitekin jakintsu izatea jakinduria al da?
17. Niri, hiletarik ez. Hilek bakean utzi behar diete biziei. Gero, egin nahi duzuen nire oroimenean. Hori zuen oroimena da, ez nirea.
18. Euskal idazleek erdaraz hobeto dakite euskaraz baino. Erdaraz, ez hain ondo.
19. Planeta hau arrazoizko izateko era bakarra giza espeziea iraungitzea da.

HOGEITA ZAZPI

1. Borrokak ez dauka propietate magikorik. Indar guztiek dakite borrokan.
2. Ez noa inora neure buruaren bila, beldur bainaiz, ni hara iristean, bera joana izango dela handik.
3. Ez dakit zezenak benetan sufritzen duen, ez dakidan bezala adar batek gibela zeharkatu dion toreroak benetan sufritzen duen.
4. Herrenak nola ibili behar du, hanka herrena beti hegaletik joan dakion?
5. Gauez eta altueratik, hiri beldurgarriek gabon-jaiotzak dirudite.
6. Emakumeak jantzita gustatzen zaizkit, baina biluzik ere begiratzen diet.
7. Hainbestetan huts egin dut hiltzeko beldurrean ezen beldur bainaiz ez ote naizen hilko distrakzio batean.
8. Baldin egia historikoa bada armen indarrak erabaki zituela inperioen mugak eta ondorengo legalitateak, zer esango genuke, ETAk irabazi balu?
9. Maitasun asegarririk aurkitzen ez baduzu, beti dago idealizazioa. Horrek ez dizu huts egingo.
10. Abaroan etzan ginenean, izarrak handiago iruditu zitzaizkigun, tiroidea bailuten.
11. Zer da maitemina? Ipuin zahar bat.
12. Fikziotik libra zaitezke. Errealitatetik, ez hainbeste.
13. Duintasunez hiltzea beti iruditu zait errazago duintasunez bizitzea baino.
14. Dezepzioz dezepzio, pozik bizi izan naiz. Dezepzio bakoitzak itxaropen bat izan du.
15. Euskara galtzeak baino pena handiagoa ematen dit neu hiltzeak, baina ez naiz horregatik tristeago bizi.
16. Denboraren arazo nagusia da amaitu egiten dela.
17. Oilarrak dakar eguzkia ala eguzkiak eragiten oilarrari? Ba, ezin dugu jakin, oilarra ez baita isilduko.

HOGEITA ZORTZI

1. Ni hiltzean, unibertso guztia hilko da.
2. Orain mundua bizi dut planeta esterno bat bezala. Unibertsoko fenomeno txiki bat.
3. Heriotzari zerbait eskatzekotan, eskatuko nioke stadium kontziente bat izatea.
4. Orduan zer? Hil egin behar al da sano egoteko?
5. Mundu hau nahiko dezepzionantea da adimen sano batentzat, baina hemengoak gara. Denbora prudentzial batera, berririk bidaltzen ez badut, hemengoak bakarrik gara.
6. Zahartzaroa hasten da sufritzen duzuna gehiago denean gozatzen duzuna baino. Zahartzaroa osatzen da beldur gutxiago diozunean heriotzari bizitzari baino.
7. Hitz egidazu heriotzaz, hilda nagoenean.
8. Heriotza ulertzea erraza da. Onartzea da zaila.
9. Mundua ez dabil ondo. Nire esanak geroz gutxiago interesatzen dira.
10. Ez naiz oso ahaltsua izango. Jaioberri batek dominatzen nau.
11. Oroitzen naiz hizketan hasi nintzenaz. Han nago ni. Oroitzen naiz atzo hitz bat ekarri ezinik ibili izanaz. Han nago ni. Oroitzen naiz bitarteko milaka une handiz eta txikiz. Guztietan, han nago ni. Beti ni. Ni, ni, ni! Eta zu? Hitz egingo dugu.
12. Inpotentzia sentimendu zapalgarria da. Sentimendua alda dezakezu, baina inpotentziak hor jarraitzen.
13. Norbere buruari barre egitea sana da. Egiozu barre hori esan duenari eta ikusiko duzu.

HOGITA BEDERATZI

1. Mundua ederra da, bai. Zein bazter egokiak aurkitzen ditudan hiltzeko!
2. Une on baten onena aurreko eta ondorengo uneak dira.
3. Euskaran, izan gaitezke gutxiengo konpakto bat. Ez da onena, baina nahikoa izan daiteke.
4. Bidaiak bai! Esperientzia txar bat oso ondo dator etxean gustura egoteko.
5. Exosferan bizi naiz. Dena ikusten dut eta nahi dudana sentitzen.
6. Ni naiz naizena eta ez naizena. Bietatik zein gehiago, ez dakit.
7. Gauzak dira eder, ni handik pasatzeari esker.
Las cosas son bellas, por haber pasado yo por ellas.
8. Zahartzen «ikasi»? Berak irakatsiko dizu. Dudan bazaude, «ikusi».
9. Ez zait ardura tontoa izatea, neuk bakarrik jakinez gero. Tontoa naizela entzutea mingarriago zait izatea baino.
10. Zenbat gauza esan den heriotzaz, kontzientzien hasieratik! Eta puntu berean gaude.
11. Jainkoa ideia ederra da, hain moldagarria ez balitz. Izate erreal batek ezin du izan hain multiformea, nola baitira hari buruzko ulerkerak.
12. Sinets nahi duzuna, beste inor ez estutzekotan.
13. Ez zaio axola zure sinestea ez izatea egia, baldin zuri on, eta inori gaitzik ez.
14. Bizi naiz munduan, bizi gabe bertan, eta bizi nahi dut horrela mundu honetan.

AURKIBIDEA

Premia gabeko hitzaurre bat.....	2
Bat	3
Bi	4
Hiru	5
Lau	6
Bost	7
Sei	8
Zazpi	9
Zortzi	10
Bederatzi	11
Hamar	12
Hamaika	13
Hamabi	14
Hamahiru	15
Hamalau	16
Hamabost	17
Hamasei	18
Hamazazpi	19
Hamazortzi	20
Hemeretzi	21
Hogei	22
Hogeita bat	23
Hogeita bi	24
Hogeita hiru	25
Hogeita lau	26
Hogeita bost	27
Hogeita sei	28
Hogeita zazpi	29
Hogeita zortzi.....	30
Hogeita bederatzi.....	31